

Patata zomorroaren gerra



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Patata zomorroa Europako ehun izurrite txarrenen artean dugu. Gerra ederra ematen du. Oligofagoa da, hau da, jaki gutxi batzuk besterik ez ditu jaten: patatak (*Solanum tuberosum*), baina bere senide diren alberjiniari (*Solanum melongena*) eta tomateari (*Solanum lycopersicum*) ere erasotzen die. Belarjalea da eta, harra denean bezala heldutan, koskaka-koskaka, di-da batean, landare goitik behera soildu dezake; hostoa, lorea, zurtoina, den-dena jaten du.

Patata zomorroa edo patata kokoa AEBetako Colorado eta Mexiko artean ezagutu zen, 1824 aldera. XIX. mendearen amaieran Alemanian azaldu zen, baina erraz menderatu zuten. Lehen Mundu Gerran egonkortu zen Europan, Bordele aldameneko estatubatuarren base militarrean. Bigarren Mundu Gerran bizi hedatu zen: Belgika, Herbehereak, Espainia... Gerra ondoren, Ekialdeko Alemanian ikaragarritzko izurritea izan zuten, eta estatubatuarrak hegazkinez zabaldu zutelako kontua zabaldu zen. Varsoviako Ituneko herrialde "komunistek", CIAren konplota zelakoan, ikaragarritzko kanpaina egin zuten, eta ikastetxeetan erakusten zitzairen haurrei zomorroiari kontra nola egin. Duela bi urte, Ukrainaren eta Errusiaren arte-



Patata zomorroa Lehen Mundu Gerran egonkortu zen Europan.

ko gerran, ukrainarrek patata zomorroi deitzen zituzten errusiazaleak; azken horiek Errusiako ikur militar ezagunena den marra beltz eta urre kolorekoak dituen xingola bat zeramaten soinean, zomorroaren itxura berekoa.

Patata zomorroa bere burua egoera txarrenetara egokitzeko gai den intsektu xelebrea eta egoskorra da. Adibidez, DDT intsektizidari aurre egiteko erresistentzia garatu zuela egiaztatu zuten AEBetan 1949an; pozoizuzgarri horri kontra egiten lehena izan zen. Horregatik oso zaila da pozoizuzgarriekin

berari aurre egitea. 2015. urterako, 55 produkturi buru egiteko gai zen. Kimikan ere, ez dago zomorroi hau garaituko duen produkturik.

Gerrak asko erakusten du, ordea. Zomorroiaren arerioak ezagutzen ari gara. Lurreko zomorroi batek, *Lebia grandis*, patata zomorroiaren arrautzak eta hartxoak jaten ditu. Eta ikaragarritzko kalteak eragiten dizkio onddo batek, *Beauveria bassiana* izenekoak; gero eta gehiago erabiltzen da intsektizida natural hori. Nori bere ordaina; esaerak hala dio: "Emaileari emok, egileari egiok". ■

EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

2003 Donostia · Euskal Herria
 ☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com